

Uztaritzeko elkarten gutun eko-herritarra

Uztaritze herria garapen iraunkorreko urrats batean sartua da 2014az geroztik, biztanleria logika eko-herritar hortan inplikatu nahian. Gaur egun, egokia iduritzen zaigu sentsibilizazio horren indartzea eta herriko bizian eragile garrantzitsuak diren elkarteak gehiago mobilizatzea, bai eguneroko funtzionamenduan, bai agerpen puntaletan, hauetako batzuek garrantzi handia izan dezaketelarik anitz jende erakarriz.

Elkarteburuak sentsibilizatu eta erantzukizunak haiei eman elkarteek ingurumenean duten eragina murrizteko xedez, besteak beste hori da zalantzarik gabe klima-aldaketaren aurkako borrokan jokoan dena, gure herriaren trantsizio energetikora buruz joateko eta gure ingurumena babesteko.

Gutun honen xedea da elkarte bakoitzari proposatzea desmartzarekin bat egitea gutun hau izenpetuz, bakoitzak bere mailan ekimenak obra ditzan. Elkarte bakoitzean erreferenteak izendatzeak proposaturiko neurrien aplikazioa erraztuko du.

GARAPEN IRAUNKORREKO 5 ENGAIAMENDUAK

1- Hondarkinak gutitu eta hobeki kudeatu, erosketa politika etiko bat garatu

ADEMEren arabera, gure hondarkinen ekoizpena bikoiztu da 40 urte barne. Herritar bakoitzak, bana beste 590 kg hondarkin sortzen ditu urtean, sailkatu, bildu eta tratatu behar diren hondarkinak. Hondarkinen birtratitzeak Frantziako berotegi efektuko gasen isurketen % 2,5 baino gehiago eragiten du. Beraz, garrantzitsua da hondarkinen murrizten aritzea.

Hondarkinak mugatu janariaren xahutzea saihestuz eta hondarkinen bereizketa selektiboa eta birziklatze sistematikoa antolatuz.

- Hondarkinak bildu jarduera lekuetan eta minibusetan.
- Kanpoko hautsontziak jarri/erabili.
- Janari hondarkinen xahutzea saihestu, baita haien ekoizpena ere, beharrak ahal bezain xuxen estimatuz: erreserbak erregulariki kontrolatu...
- Hondarkinen produkzioa ttipitu estalkiak mugatuz: estalkirik gabeko janaria lehenetsi, baita familia formatuak eta eko-birkargak ere...
- Erabili ondoan botatzen diren ekoizkinak baztertu, berrerabilgarrien faboretan (basoak, esku botilak, baxera kontsignatuak) <https://www.biltagarbi.com/mandada-beirak/>
- Botilako uraren kontsumoa saihestu eta duxuluko ura lehenetsi.
- Askari indibidualak saihestu.
- Ekitaldi baten ondotik, afixa-pankarten eta banderolen bilketa egin.
- Parte hartzaileak bultzatu lekuaren garbitasuna segurtatzera joan baino lehen.

Garapen iraunkorrari buruzko sentsibilizazio tresnak plantan ezarri elkarte-kideen artean

- Seinaletika argi bat ezarri, hondarkinak sailkatzera bultzatuz, eta oroitaraziz ez direla hondarkinak utzi behar bilketarentzat pentsatuak diren gailuetarik kanpo: bereizketa selektiboko ontzi ttipiak aurreikusit.
- Baso eta ontzixka birziklagarrientzat kontsigna bat ezarri.
- Elkarte-kideak bigarren eskuko materialaren trukatzera sustatu, bigarren eskuko materialaren merkatu batean parte hartuz.

- Materialaren konponketa faboratu.
- Euskoaren kide egin tokiko ekonomiaren zirkuituak bultzatzeko: <https://www.euskalmoneta.org/>
- Hornitzeetan edo erakustaldietako edantegietan, laborantza ekologikotik, bidezko merkataritzatik edota tokiko ekoizleetatik datozen produktuak proposatu,.

2- Garraioa : joan-etorri eko-arduratsua lagundu

Autoz egiten diren lau joan-etorrietarik bat kilometro bat baino guttiagokoa da. Ekitaldi gehienetan, karbono inpaktuaren % 80 inguru garraioak du eragiten. Joan-etorrien gutitzeari eta garraio modu goxoen erabilpenari esker, garraioaren berotegi efektuko gasak laster apal daitezke. Hortan osagarria eta bizi-kalitatea ere jokoan daude.

- **Joan-etorri goxoen moduak lehenetsi** : elkarre-kideak oinez edo bizikletaz etortzera bultzatu.
- **Garraio kolektiboaren erabilpena lehenetsi** : minibusak, auto-partekatzea, garraio publikoak. Urte hastapenean, leku beretik datozen familiak elkarri aurkeztu, autoaren partekatzea bultzatzeko.

3- Baliabide energetiko eta naturalen kontsumoa murriztu

Egunero 150 litro ur bana beste kontsumitzen ditugu. Kirol ekipamenduak ur kontsumitzaile handiak dira, bereziki dutxak eta komunak. Eraikinek Frantziako energia-kontsumoaren % 44 inguru eragiten dute.

Erabiltzaileak ur gutiago xahutzeari sentsibilizatu

- Lokaletik atera aitzin, kontrolatu ez dela dutxulurik (edo ur ehizarik) isurtzen ari.
- Lokalaren arduraduna abisatu ur isuriak direlarik.
- Dutxen zentzuzko erabilera sustatu, ur edangarria eta ura berotzeko behar den energia aurrezteko.
- Ekolabel ofiziala duten garbiketaren produktuaren erabilpena sustatu (ekolabel europarra...)

Erabiltzaileak energiari lotuak diren eko-ekintzei sentsibilizatu

- Argi naturala ahal bezainbat baliatu eta argiak behar denean bakarrik piztu.
- Herriko geletatik ateratzean argiak sistematikoki itzali.
- Leihoak hetsi gelatik atera aitzin, berotasuna ahal bezain guti galtzeko.
- Kirol zelaletako argi proiektagailuak molde egokian piztu eta itzali.
- Gelak ez sobera berotu, ateak eta atariak hetsirik atxiki.
- Informatika-tresnak itzali (ordenagailua, inprimagailua) beilan utzi orde.
- Gelen erabiltzaileei keinu onak gogoraraziko dizkieten posterrak ezarri etengailuen gainean.

4- Ingurumena errespetatuz komunikatu

Alde batetik, urtean 9 edo 10 milioi tona paper kontsumitzen dira, hots 167 kg biztanle bakoitzeko. Komunikazio ekintzak molde adierazgarrian sartzen dira ingurumen saileko inpaktuetan. Harremanen digitalizatzeko eragin hori modu eraginkorrean murriztea ahalbidetzen du. Bestalde, interneteko sarean erabiltzeak energia anitz kontsumitzen du ; horrengatik haien zentzuzko erabilpena beharrezkoa izanen da.

- Komunikazio tresnak ahal bezainbat desmaterializatu
- Paperaren erabilpena mugatu komunikazio elektronikoaren zentzuzko erabilera lehenetsiz (mezu elektronikoak eta sare sozialak)
- Mezu elektronikoetan idatzi : "Ingurumenari pentsatu, ezinbestean baizik ez inprima ", "Berde pentsatu, milesker mezu hau inprimatzeagatik beharrezkoa denean"
- Deskargatzeko estekak erantsitako dokumentuei hobetsi.

Inprimatzeak optimizatu

- Recto-verso inprimatzea orotara hedatu
- Zuri-beltzez inprimatzeko parametrizazioa defautez hautatu
- Espazioaren erabilpena optimizatu dokumentuen maketazioan
- Inprimatu aitzineko bista erabili hutsik ez egiteko
- Verso garbiak erabili zirriborro gisa
- Paper birziklatua edo ekolabelizatua erabili
- Tirada kopurua ahal bezain zehazki estimatu
- Banatutako liburuxketan hau idatzi: "Dokumentu hau karrikan ez bota, birzikla ezazu"
- Informazio garrantzitsuentzat, inprimatzeko bertsioak sarean ezarri (kolore eta estilo efektu gutiagorekin)-
- Kide zerrenda bat sortu elkartearen berriak posta elektronikoz igortzeko

Klubak garapen iraunkorraren desmartzarekin duen engaiamenduari buruz komunikatu

- Ekitaldian espero diren praktika onak oroitarazi (uraren eta energien aurrezte, hondarkinen bereizketa...)
- Elkarteak gutuna izenpetu duela jakinarazi eta testua elkarte-kideen esku utzi edo haiei zabaldu.

5- Elkarte inklusiboa eta eko-herritarra izateko nahikaria

Parekotasun, aniztasun eta inklusio baloreak gure elkarteetan defendatu behar dira, bereizkuntza mota ororen aurka borrokatzeko.

- Elbarritasun egoeran diren pertsonentzat, ekitaldietarako helgarritasuna segurtatu
- Ahal delarik, parekotasuna errespetatu elkartearen.
- Bestea bere ezberdintasunean onartu (jatorriak, erlijioak, generoak.)
- Euskararen erabilpena lagundu elkartearen baitan komunikatzeko, idazki elebidunak ezarriz (afixak) eta hizkuntzaren borondate oneko praktika sustatuz.

Izenpetzaileek hitzematzen dute desmartzak hau baloratuko dutela, gutuna elkarte-kide guzietan zabalduz eta egunerokoan ekintzak obratzen direla zainduz.

Uztaritze herriak desmartzak honi atxikiak diren klubaren ekimen oro sostengatuko du.

.....-en egina

Data :

Sinadura :